

**«EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK» ARAUTZEKO ORDENANTZA****HITZAURREA**

Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala denez gero, Areatzako udalerriko eta Udaleko hizkuntza da. Eta hala izanik, herria euskalduntzeko asmoz, Udalak, euskara ikasten edo hobetzen dabiltzan herritarrei diru-laguntza publikoak ematea erabaki du, ordenantza honetan zehazten diren baldintzak betetzen diren heinean.

Udalak, udalerriko gizarte sektore guztietan be euskaraz normaltasun osoz bizitzeko aukerak zabaltzeko ahaleginak bultzatu gura ditu, euskararen normalizazioa helburu hartuta.

Hain zuzen ere, behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakiz eta bultzatuz eta euskara erabat berreskuratzeko hizkuntzaren aldeko urratsak areagotuz, euskaraz bizi gura duten billaroztarrei horretarako aukera eskaini gura zaie.

Ilido horretan, Udala ohartu da hizkuntzaren normalizaziorako oso garrantzitsua dela udalerriko herritarrek euskara ikasi edo hobetzeko ikasketak egitea.

Hori guztia kontuan izanda, euskalduntze saiakera horretan dauden herritarrak lagundu eta euskararen erabilera areagotu guran, besteak beste, euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzako laguntza sistema sustatu gura du Areatzako Udalak.

1. artikulua.— Helburua

Ordenantza honen helburua da Areatzako Udalak euskara ikasi edo alfabetatzeko ikastaroak egin dituzten herritarrei diru-laguntzak ematea.

Horrek eragindako ahalegin ekonomikoan laguntza eta babes eskaintzea, eta neurri batean, berreskuratzeko bidea izan dezatela.

2. artikulua.— Diru-Laguntza

Diru-laguntza ikastaroaren zenbatekoaren %100 izango da gehienez. Diru kopuru hori ezin izango da urte eta pertsonako 500,00 euro baino gehiagokoa izan.

Beste diru-laguntzarik jasoz gero, gain-finantzaketa ekidite aldera, Areatzako Udalak %100era arteko diferentzia ordainduko du.

3. artikulua.— Finantza Baliabideak

Areatzako Udaleko urteko aurrekontuan jasotakoak izango dira ordenantza hau ezartzeko aurreikusitako ekonomia baliabideak. Partida hori agortuz gero, diru-laguntzak eten egingo dira harik eta esleipen berria egin arte.

4. artikulua.— Onuradunak

Diru-laguntza honen onuradunak Areatzan erroldaturiko auzokideak izango dira, ikastaroa euskara irakasteko erakunde, publiko zein pribatu, homologaturen batean egin dutenak. C1 mailara arte, diru-laguntza matrikularen zenbatekoaren %100 izango da.

5. artikulua.— Diru-laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak

- Areatzan erroldaturik egotea ikastaroak irauten duen aldi osoan eta, gutxienez ere, 16 urte beteta izatea ikastaroa amaitzen denean.
- Ikastaroak HABEk homologatutako zentroetan egitea.
- Diru-laguntza jasotzeko, matrikulatutako ikastaroan asistentziaren %80 bete duela ziurtatu beharko da zentroaren ziurtagiria aurkeztuz.
- Diru-laguntzak jasotzeko, hartzailleak Udalarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzea.
- Egindako ikastaro maila bererako hiru urtez jarraian diru-laguntza eskatu ez izana.
- Ikastaroa amaitu eta diru-laguntza eskatzeko ezarri den epean eskaerarik egin ezean, ezin izango da aurrerantzean, egindako ikastaro horregatik diru-laguntzarik eskatu.

**6. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak**

Ordenantza honetan adierazitako diru-laguntzetan sartzeko, doakionak Areatzako Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu beharko du eskaria, hurrengo agiriekin batera:

- Dagokion ikastarorako, beste inongo erakundetatik diru-laguntzarik jaso ez izanaren aitopen sinatua. Eta jaso badu, dagokion egiaztatzea.
- Diru-sarrera egin nahi den bankuko kontu korrontea
- Banketxeko ordain-txartela edo txartelak, ikastaro-matrikularen ordainketa egiaztatzeko.
- Ikasketak burutzen dituen zentroak egindako egiaztatzea, ondorengo zehaztasun hauekin:
 - a) Emandako eskola orduak.
 - b) Egindako ikasmaita eta lortutakoa.
 - c) Ordutegia.
 - d) Iraupena.
 - e) Matrikularen zenbatekoa.
 - f) Asistentzia.

7. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

Diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea: urriaren 1etik 31ra artekoa izango da.

Azken eguna jaieguna izanez gero, eskabideak aurkezteko epea hurrengo astegunera arte luzatuko da.

8. artikulua. — Prozeduraren instrukzioa

Prozeduraren instrukzioa udalak egingo du.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, udalak interesdunari eskabidean aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatu ahalko dio; horretarako, 10 egun natural izango ditu, jakinarazpena jaso denetik aurrera zenbatzen hasita. Jakinarazpen horren bidez, akats horiek zuzendu ezean, eskabide horri uko egingo zaiola jakinaraziko zaio.

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta, hala badagokio, akatsak zuzentzeko epea amaitu ondoren, udalak txostena bidaliko du. Era berean, atzera bota diren eskabideak eta horretarako arrazoiak azalduko dira, baita onartutako eskabideak, emango den diru-laguntzaren zenbatekoa eta oinarri horietan aurreikusitako betekizunen betearazpena ere.

Instrukzio-organoak ebazpen-proposamena emango du. Ebazpen-proposamena laguntza emango duen organoaren aurrean emango da, hau da, alkatearen aurrean.

Berriazko ebazpenak honakoak jasoko ditu:

- Eskatzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzen onuradunak eta horien zenbatekoa.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

9. artikulua. — Arau-haustea, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteen eta zigor-ezarpenen gaineko erabakiak, itzultzeko prozedura eta arrazoiak diru-laguntzak arautu dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunean hasitako hamabost eguneko epea iraganda eta horrela iraungo du, Udalak hori aldatu edota indargabetzea erabakitzen duen arte.